

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2486

AGINDUA, 2016ko maiatzaren 20koa, Hezkuntza Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak deklaratzeko dena.

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorritz, eta dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari eta goi mailako epaileen izaera honako hauei emango die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2016ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I. eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Deklarazioa indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindu hau argitaratzen den egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluek xedatutakoaren arabera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatutakoaren arabera.

2016ko ekainaren 9a, osteguna

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 20a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

GOI-MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZENDATUTAKOEN ZERRENDA

Izen-abizenak	Espediente zk.	Modalitatea	Kategoria
Aguirre Santos, Asier	447/15/D	Atletismoa	Kirolaria
Cuevas Ettcheto, Asier	468/16/D	Atletismoa	Kirolaria
Granados Alkorta, Amador	444/16/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Hernandez Serrador, Ainhoa	445/16/D	Eskubaloia	Kirolaria
Ibarra Rabancho, Elisabet	455/16/D	Futbola	Kirolaria
Lazcano Guimerans, M ^o Begoña	442/16/D	Piraguismoa	Kirolaria
Llanos Burguera, Eneko	458/16/D	Triatloia	Kirolaria
Mañoso Hierro, Paula	451/16/D	Futbola	Kirolaria
Oroz Areta, Maite	459/16/D	Futbola	Kirolaria
Paredes Hernandez, Irene	454/16/D	Futbola	Kirolaria
Peña de las Heras, Amaia	452/16/D	Futbola	Kirolaria
Pintado Astorquiza, Ekaitz	465/16/D	Karatea	Kirolaria
Rahm Rodriguez, Jon	464/16/D	Golfa	Kirolaria
Ruiz de Aretxavaleta Perez, Xabier	443/16/D	Piraguismoa	Kirolaria
Sierra Larrauri, Andrea	453/16/D	Futbola	Kirolaria
Tirapu de Gofñi, Ainhoa	450/16/D	Futbola	Kirolaria
Vazquez Morales, Erika	456/16/D	Futbola	Kirolaria
Alkorta Aguirregabiria, Olatz	73/16/T	Piraguismoa	Teknikaria
Artolazabal Royo, Ainhoa	75/16/T	Txirrindularitza	Teknikaria
García Gonzalez, Jose Luis	76/16/T	Atletismoa	Teknikaria
Saies Sistiaga, Ekaitz	72/15/T	Piraguismoa	Teknikaria
Santisteban Leguina, Aitor	74/16/T	Surfa	Teknikaria